

Martutene

IRUTXULO

Orain arte Antiguako Zapatarri etxe okupatuan izandakoek Martuteneko Arantzazuko Ama ikastola zaharrera etortzeko asmoa dute. Bertan bizi-tzeaz gain, kultur iharduerak ere eskaini nahi dituzte. Egunotan haien proiektua aurkezten ibili dira auzoan.


**Z**apatarri etxe okupatutako lagunek auzora etortzeko asmoa dute, Arantzazuko Ama ikastola zaharrera, hain zuzen. Hau dela eta, egunotan Martuteneko hainbat auzotar eta elkarterekin bilerak egin dituzte, haien egitasmoa ezaugarazteko.

Zapatarriko etxe okupatua behera bota behar dute. Ondorioz, bertako bizilagunak beste etxe baten bila ibili ondoren, egoki ikusi dute Arantzazuko Ama ikastolaren lehengo eraikina, haien proiektua

«Euskaraz bizi nahi dute Zapatarri Kolektibokoek»

# Zapatarriko okupak, Arantzazuko Amara

## Ikastola zaharra birmoldatu eta kulturunea sortu nahi dute bertan



Arantzazuko Ama ikastola zaharreko berritze eta konpontze lanak Zapatarriko lagunek beraiek egingo dituzte.

tua aurrera eramateko.

Zapatarri Kolektiboko kideek etxebizitza eta kulturune bihurtu nahi dute eraikin zaharra. Etxea berritzeko autoeraikuntza erabiliko dute. Hau da, birmoldaketa beraiek egingo dute. “Autoeraikuntzaren bidez”, diote Zapatarri Kolektibokoek, “espazioa erabiliko duten pertsonak beren beharrak neurtu eta teknikari baten laguntzaz ikasi eta ikasitakoa praktikan jarritz, etxea konpontzen dute”. Etxe bat berritzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Beraz, Zapatarriko lagunek hainbat ikastaro

egingo dituzte: aroztegia, elektrizitatea, iturgintza edota igeltsaritza. Dena dela, lanotan Mikel Alonso arkitektoaren laguntza izango dute. Birmoldaketari ekiteko azterketak egiten hasiak dira honezkero, lanak eta beharrak finkatzen, hain zuzen.

### Kultur eskaintza

Etxea berritzeko orduan kultur iharduerak egiteko zein azpiegitura behar diren konputuan hartuko dute. Izan ere, ikastola zaharra, etxebizitzaz gain, kulturune ere bihurtzeko asmoa dute. Besteak beste, erakusketak, antzerki saioak,

hitzaldiak, mintegiak edota zineforuma antolatu nahi dituzte bertan. Horrekin guztiarekin batera, ikastaroak ere egingo dituzte: txalaparta, alboka, keramika, argazkigintza, dantza edo hizkuntzak. Ekintza hauetarako, areto nagusi bat eta bestelakoak, txikiagoak, egokitu nahi dituzte.

Zapatarriko Kolektiboko lagunek diotenez, euskaraz bizi nahi dute Arantzazuko Ama ikastola zaharrean: “geuk ere euskaraz jardun nahi genuke etxeko dinamikan, eta ildo honetatik, erabilerari dagokionez, zerbait egin auzoari begira”.